

Adi egon! Igande honetan hedabideetan baremazio/birbaremazio deialdia argitaratuko da.

Eskaerak aurkezteko epea: 2014/01/27tik 2014/02/07ra arte (biak barne).

Lan esperientzia urtarrilaren 12ra arte zenbatuko da (hau barne).

BERRIA:

- Hiru **zerrenda independente** sortzea kudeaketarako (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa)
- Lurraldeak **zonaldeka** banatuko dira, baina arazo informatikoak konpondu arte ez da martxan jarriko.
- **Minorrak** eta **graduak** baremoan sartu dira.

Stee-eilas sindikatuak uste du:

Zerrendaren kudeaketa independentea eta zonaldeko aukeraketa batera egin beharko liratekeela, langileentzat aldaketa handiak direlako. Honengatik, positibotzat joko genuke Partzuergoak programa informatikoan aldaketak ahalik eta azkarren egitea.

Data: 2014/01/09

